

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Coronita euskalduna

ELIZONDO (NAFARROA), 1860. Braulio Iriarte Goienetxe jaio zen Txokoto auzoan, laborari familia batean. 1877an, 17 urte zituela eta inolako hezkuntza akademikorik, lanbiderik eta ondasunik gabe, Mexikora abiatu zen. Okindegi batean lanean hasi eta, mende laurden geroago, XX. mendean sartuta, 80 okindegiren jabe zen. Ondoren, irinaren negozioan sartu zen: Fermin Etxandi eta Juan Oteiza nafarrekin batera Euskaro errota ipini zuen martxan, eta Agustín Jauregi eta Jose Larregi ilobekin, Beti-Ona errota.

Mexikar Iraultzaren garaian, 1913an, Iriartek ogiarekin zerikusia zuen hirugarren negozio bide bat ireki zuen, legamiarena. Levadura Comprimida Leviatan elkartea sortu zuen, beste nafar batzuek lagunduta. Tankera horretako Mexikoko lehen enpresa izan zen, ordura arte ogia egiteko legamia ez baitzen herrialde osoan egiten eta Iraultza bitartean, Estatu Batuetatik ekarri behar izaten zuten produktua hori.

Jarduera horiei esker nahikoa kapital bilduta, 1922ko martxoaren 8an Cervecería Modelo enpresa sortu zuen Iriartek. Elkartea osatzeko, baztandarrak Mexikoko espainiar koloniako enpresaburu indartsuenak bildu zituen. Bera izan zen administrazio kontseiluko presidentea, enpresa sortu eta bere heriotzara arte (1922-1932) eta berak jarri zituen, kapitalaren zati handi batez gain, fabrika eraikitzeko lurrak. Baina enpresa jaio eta zortzi hilabetera, 1922ko azaroan, konpainia jaioberria krisiak jota zegoen. Kapitalak behera egin zuen eta



Goian, Corona, Modelo enpresaren produktu nagusia, gure artean Coronita izenez merkaturatzen den pilsener motako garagardoa. Azpian, Tacubako fabrika zaharra.

akziodunak nahiz administrazio kontseilua goitik behera aldatu behar izan zituzten.

La espainiar enpresari guztiek ihes egin zioten eta Iriartek enpresari txiki nafarren-gana jo zuen hasierako urte gogorrei aurre egin ahal izateko. Marcelino Zugarramurdi, Francisco Cilveti, Martín Oñanburu, Andrés Barberena, Fermín Buades, Pedro Magirena, Victoriano Loperena, Segundo Minondo, José Olabe eta Pedro Etxenikiek hartu zituzten garagardo enpresaren kargurik garrantzitsuenak. Eta, Leviatango etekinak proiektu berria finantzatzeko erabiliz, 1925ean fabrikaren ateak zabaltzea izan zuten.

“Fabrika ederraren inaugurazioa 1925ean egin zen eta bertan izan zen Mexikoko Errepublikako presidente Plutarco Elías Calles jauna, kabinete osoak lagunduta”, zioen *El Sol* egunkari espainiarrak. Modelo, Negra Modelo eta Corona garagardoak ekoizten hasi ziren.

Iriarte hil zenean, nafarren kontrol aroa bukatu zen eta Pablo Díez buru zutela, leondarren txanda iritsi zen. Díez 1971n hil zenerako, Modelo oso zabaldua zegoen, besteak beste, Félix Aranburuzabala eskoriatzarren lanari esker. Haren seme Pablo Aranburuzabala izan zen, ondoren, konpainiako presidenteorde eta 1995etik aurrera, biloba María Asunción Aranburuzabalak dauka kargu hori. Mexikoko enpresa munduan gizonen zuten hegemonia hautsi du eta *Reina de la Corona* (koroaren erregina) esaten diote. Modelo Mexikoko garagardo enpresa nagusia da gaur egun, eta Corona garagardo munduan gehien edaten diren garagardoaren artean laugarrena da. ■

ARRASTOAK

NUMANTZIAko aztarnategi arkeologikoa (argazkian) arriskuan dago, inguru horretan burutuko diren hainbat proiektu urbanistikoren erruz. Espainiako Historiako Errege Akademiak nahiz San Fernando Arte Ederren Akademiak txosten bana plazaratu dute Soriako talde monumental garrantzitsuen horren egoera larria agerian utziz. Bere-

hala, hainbat elkarte, unibertsitate eta adituk bat egin dute akademien kezka eta eskakizunekin.

Beste behin, nabarmen geratu da aztarna historikoek ez dutela babes nahikorik. Antzinaroko aztarna hauek behintzat defentsa numantziarra beharko dute zementuaren inbasioari aurre egin ahal izateko.

